



**MARKINA-XEMEINGO UDALA
(BIZKAIA)**

Markina-Xemeinen, 2014ko azaroaren 3an,

PRENTSA OHARRA

Meabeko auzokideen kexa dela eta Udalaren idatzia arduradunei.

Markina-Xemeingo Udaletxean idatzi bat jaso dugu, Meabeko hainbat auzokidek izenpetuta, auzoko harrobiek euron baserrietan eragiten dituzten arazoez gain, etengabe bidean gora eta behera dabiltzan kamioiek auzoen ibilbidea (autoz zein oinez) ikaragarri zailtzen dutelako kexu.

Diotenez, euretariko askok behin edo behin izan dute istripuren bat kamioi batekin, batez ere beheranzko norabidean doazenekin; istripu batzuk "arinak" izan arren (urradurak, ispilu hautsiak...), ba omen dira erabat txikituta gelditutako autoak ere.

Egia da, izan ere, kamioiak bizkorregi ibiltzen direla Markina-Xemeindik Aulestira doan bide horretan. Are gehiago beherantz datozenean, ez baitute abiadura mantsotzen. Eta, jakina, auzokideak beldurra dute bidera irteterakoan.

Heriotzen bat gertatu arte kamioien joan-etorri honek duen arrisku mailaz ez ote garen ohartuko galdetzen dute auzokideek.

Markina-Xemeingo Udal honek bat egiten du auzokideen beldur eta kezka horiekin eta, horregatik, bidaltzen da gutun hau Bizkaiko Foru Aldundira, Ertzaintzara eta harrobiak ustiatzen dituzten arduradunengana. Lehenago ere berba egin izan da gai honen gainean, eta aditzera eman izan dugu bidea txarto dagoela eta arriskutsua dela denontzat. Baina arriskuak bere horretan dirau. Batez ere, bidearen ondoko baserrietan bizi direnentzat. Baina baita egunero-egunero Lekoiz gainera eta Santa Eufemiara paseoan joan ohi diren herritar mordoarentzat eta beharrera edo beharretik bueltan Aulestira joan behar duten guztientzat ere.

Ez ote dago ezer egiterik ezer larririk pasa baino lehen?